



Bizikleta berean piñoi desberdinak zertako ?

Zer da desberdintasuna ?

Ez ote dugu egoera hau lehenago ikusia ?



Abiapuntua

Zergatik bizikletan "bitezak" badira? Zergatik piñoi desberdinak aurki ditzakegu?

Hipotesiak

Haurrak utziko dira hipotesien egitera.

Egiaztatuko duen jarduera

Begi aitzinean duten bizikletan izariak har daitezke: piñoiez aldatuz, garapenak neurtuz eta neurriak notatuz (plateraren neurria ez da aldatuko, taularen ez konplikatzeke).

Denen buru zer?

Ondoko orrialdeko taularen antzeko zerbait asma daiteke gure hasierako galdeari erantzuna ekartzeko eta egin diren hipotesien egiaztatzeke.

Bizikletaren platera eta piñoiak

Mugimendua piñoietan

Mugimenduaren transmisioa aldatzen da piñoiez aldatuz bezala. Platera berarentzat piñoi handiagotik ttipiagora iraganez, pedalier edo platera itzuli batek erroterei eginarazten duen distantzia (garapena) luzatzen da.

Erroten garapena piñoi desberdinekin


	piñoi ttipia	arteko piñoia	piñoi handia
Garapena			

Taula bete

Garapenaren definizioa





Garapena deitzen da bizikletak pedala itzuli batean egiten duen distantzia.

Marrazki hauei begiratzuz, zein kasutan den garapenik handiena errazu.



Gurpilak	Helburua: jakintasuna:	Gaiari doakion jakintasuna:	Hizkuntzari doakion jakintasuna:
----------	---------------------------	--------------------------------	-------------------------------------

Gurpil edo errota hauek oro itzulika ari dira. A errota da kasu guzietan mugimenduaren eragilea. Errota bakoitzari norabidea emaiozu gezi baten bidez.



Izena :	Ikas neurria			Norekin egina			Eguna :
	ona	artekoa	eskasa	heldu batekin	lagun batekin	bakarrik	